eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO

IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA PLANIFIKATZEKO ORIENTABIDEAK 2020-21

2021 URRIAREN 8A

Aurkibidea

1. SARRERA 2

2. AURRETIAZKO GOGOETAK 2

3. IRAKASKUNTZA ETA TUTORETZAK 2

4. JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA 3

5. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK 5

6. GELAK EGURASTEA 5

1. SARRERA

Denok dakigunez, zalantzarik gabe beste ikasturte atipiko batera garamatzan pandemia (COVID-19) egoera batean jarraitzen dugu. Plan hau dinamikoa da, eta helburu argi bat du: prebentzio eta babes neurriak hartzea, irakasle-ikertzaileen, ikasleen eta AZPko langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, eta ikasturte berria ahalik eta modurik hoberenean burutzeko. **Plan dinamiko bat da, eguneratuz joango dena, osasun, lan eta hezkuntza arloko agintariek eta UPV/EHUk berak ezarritako ildoen arabera. Horri dagokionez, dokumentu hauek irakurtzea ere funtsezkoa da: *2020/2021 ikasturterako irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak*.**

2. AURRETIAZKO GOGOETAK

- Bilboko Hezkuntza Fakultateko kide guztion erantzukizuna da kontuan hartzea UPV/EHUk berak jarduera presentzialera modu seguruan itzultzeko eman dituen jarraibideak. Jarraibide horiek hemen kontsulta ditzakezu, eta komeni da horietara maiz jotzea, etengabe eguneratuko direlako.
- Bilboko Hezkuntza Fakultateak (UPV/EHU) prestatu dituen neurriak eta jarraibideak COVID-19 (SARS-CoV-2) birusak eragindako osasun alerta dela eta, weborrian dagoen Protokoloan jasotzen dira. Protokolo hau etengabe eguneratuko da gaixotasunaren eboluzioaren eta informazio berriaren arabera eta agintariek ematen dituzten jarraibideekin bat etorriz.
- Bilboko Hezkuntza Fakultateko COVID19 arduradunarekin harremanetan jartzeko zuzendu helbide elektroniko honetara: bhf.covid19@ehu.eus

3. IRAKASKUNTZA ETA TUTORETZAK

Irakaskuntza eta tutoretzak aurrez aurrekoak izango dira urriaren 4tik. Kontsultatu JARDUN AKADEMIKOAN PRESENTZIALTASUN OSOA BERRESKURATZEKO NEURRIAK EZARTZEKO DENA.

4. JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA

Irakasleek eta ikasleek nahitaez erabiliko dute maskara, ariketa fisiko bizia egitean izan ezik (21/2020 ELDren 6.2 artikulua). Gimnasioan eta aire zabalean, ariketa fisiko bizia egiteagatik maskararik erabili behar

ez denean, 2 metroko segurtasun distantzia gordeko da gutxienez. Gimnasioa maiz egurastuko da, eta instalazio bakoitzaren protokoloa beteko da beti.

5. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK

Ahal bada, administrazio zerbitzuak telematikoki arituko dira irakasle-ikertzaileekin eta ikasleekin (posta elektronikoa edo telefonoa).

Ezinbestekoa denean aurrez aurre aritzea, hitzordua eskatuko da (biiue.idazkaria@ehu.eus). Hitzordurik eskatu ez bada, idazkaritzara jo duten pertsona guztien datuak hartuko dira.

6. GELAK EGURASTEA

Airearen zirkulazio mekanikoa jarri da martxan ikasgela guztietan, eta atezainek gelen leihoak zabalduko dituzte goizero, komeni delako ere leihoak irekitzea. Ezin bada goizetan ireki, ahal bezain laster egingo da.

Espero dugu denon artean gai izango garela modu seguruan itzultzeko jarduera presentzialera. Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta agur bero bat.